

SOVetik STVra. ELAren eboluzioa II. Errepublikan *El Obrero Vasco, Lan Deya* eta *Euzko Langille* argitalpenen azterketaren ildotik

Jotxo Larrañaga Zubizarreta
EHUko irakaslea

Artikulu honen xedea *El Obrero Vasco, Lan Deya* eta *Euzko Langille* argitalpenen bidez, SOV-ELA euskal sindikatuak errepublikanismoerantz eta erradikalizatzeko programatikoa eta aldarrikatzaileerantz egin duen eboluzioa aztertzea da. II. Errepublikako askatasun-testuinguruak eboluzio horretan lagundu zuen.

GAKO-HITZAK: SOV-STV · Trade Union · II. Errepublika · *El Obrero Vasco* · *Lan Deya* · *Euzko Langille*.

From SOV to STV. The Trajectory of ELA in the II Republic. The Evolution of Basque Workers' Solidarity in the II Republic. *El Obrero Vasco, Lan Deya* and *Euzko Langille* newspapers.

This article researches the evolution of the Basque union SOV – STV during the Second Republic (1931 -11937). The autor explains the change in favour of a Republican regime and the evolution towards a working-class programme radicalisation. Freedom context of the Republic was a strong point to develop this change.

KEY WORDS: SOV-STV · Trade Union · II Republic · *El Obrero Vasco* · *Lan Deya* · *Euzko Langille*.

Jasotze-data: 2011-03-09. *Onartze-data:* 2011-05-04.

O. Sarrera

XIX. mendeko eta XX.¹ mende-hasierako Euskal Herriko gizarte-historiaren ikertzaileek Solidaridad de Obreros Vascos-en eboluzioa eta haren barne-egitura eta printzipio programatikoak garai aldakorretara egokitzeko beharra azpimarratzen dute. II. Errepublikaren etorrerarekin eta hainbat lan- eta gizarte-legeren aldarrikapenarekin, langileen sindikatu solidarioak antolaketa-aldaketa garrantzitsua izan zuen 1933an. Urte horretan, Gasteizen egindako II. Biltzarrean, lanbide-elkarteen federazio izatetik sektoreko eta lurraldeko taldeen konfederazio izatera pasatu zen. Pauso horretan, oso garrantzitsua izan zen konfederazioan Solidaridad de Empleados Vascos erakunde garrantzitsua (ordura arte, autonomoa) sartzea. Horrek sindikatuaren izena aldarazi zuen 1933an, eta Euskal Langileen Alkartasuna izena hartu zuen.

Antolaketa-eboluzio horrekin batera, SOV-ELAK sindikatu-heldutasuna esku-ratu zuen, klase-erakunde gisa. Lehenengo urteetako antisozialismotik beste planteamendu batzuetara igaro ziren; euskal kultura-, erlijio- eta estatu-filosofiatik urrun bazeuden ere, langileen aldarrikapenak, lehiakor izateari utzi gabe, konpromiso aldarrikatzaile komunak ziren enpresetan eta langileen kontzientzietan. Zentzu horretan, jarrerren erradikalizatzeaz hitz egin dezakegu. SOVen kasuan, kapitalarekiko portaera harmoniatsuak alde batera utzi eta patronalarekiko borroka-jarrerak hartu zituen, nahiz eta horiek kutsu «aberkioa» zuten.

SOVen eboluzio hori ez da modu linealean azaltzen, besteak beste, Ludger Mees (1992: 151) egileak aipatzen duen bezala, eta ez zuen garapen uniformerik izan ezta ere. Garapen ziklikoa izan zuen, eta praktikan, etengabeko kontraesanak izan zituen euskal mugimendu nazionalistaren erakundearekin zuen erlazioagatik. EAJ alderdi konfesionala eta katolikoa zen, gizartean kutsu kristau-demokrata zuen, klaseartekoa zen eta gizarte- eta lan-arloan gutxi garatutako programa berantiarra zuen.

Lan honen hipotesiak II. Errepublikaren ezarpena eta bere eragina nabarmen-tzen ditu, nola askatasun zibil eta politikoei dagokienez, hala gizarte- eta lan-arloan izandako lege-garapenari dagokionez. Ondorioz, euskal langileen sindikatuak afiliatu gehiago lortu zituen, barne-antolaketa garatu zuen eta ekintza programatiko bat jarri zuen martxan SOV-ELAK inoiz lortu ez zuen aldarrikapen-praxian.

Langileen prentsa solidarioaren iturrietara hurbildu nahi izan dugu, hain zuzen, *Obrero Vasco* (1919-1933), *Lan Deya* (1933-1937) eta *Euzko Langille* (1935-1937)

1. 1911n Solidaridad de Obreros Vascos langileen euskal sindikatu kristau eta nazionalista sortzeko zergatiak interpretatzerakoan eta balioesterakoan guztien adostasuna dago. Besteak beste, Ansel, Aurrekoetxea, Fusi, Garde, Larrañaga Policarpo, Olabarri, Unanue eta Urkiza egileen arabera, UGTn bateratutako langile meatzarien aldarrikapenek eragindako gizarte-gatazkak langile ez-sozialisten erantzun alternatibo bat eskatzen zuen. Bere sorreran eta II. Errepublikara arte, solidarioen filosofia erabat antisozialista zen. Klasearen nortasuna mantentzearen ginetik, euskal balio tradizionalak mantentzea zuen xede, eta «kanpotarren» (erbestekoak, «maketoak») balio laiko eta antiklerikalen ginetik, printzipio kristauei eustea. Aurkako balioak ideologia sozialista zuen UGT sindikatuan taldekatzen ziren. Zentzu horretan, UGTren sozialismo eta sindikalismoaren ekintza euskal kutsua zuen ororekiko zapaltzailetzat hartzen zen, eta tokiko ohitura eta kultura galarazten zituzten balioak babesten zituela pentsatzen zen.

egunkarietara, baina eskasia eta hutsune hemerografiko handiak aurkitu ditugu. 1933ko *El Obrero Vasco* argitalpenaren zenbaki ugari falta dira. Urte horretan, garrantzi handiko antolaketa-aldaketak eta aldaketa programatikoak gertatu ziren. Ricardo Miralles-ek UGT sindikatuaren argitalpenaren gainean egindako lanak (1986: 631-641) ere hutsune hori islatzen du. Ikertzaileek ez dituzte UGT sindikatu sozialistaren argitalpenaren hainbat urtetako zenbakiak. Hala, euskal prentsa sindikalaren hemerrotekak hutsune handia du; beharbada, garrantzi publiko gutxi duelako, edo beharbada, organo horiek iritzi publikoarengan eragiteko lana *Euzkadi* eta *El Liberal* egunkari handien esku uzten zutelako. Aurrerago aipatuko dugun bezala, bi egunkari horiek sindikatuen argitalpenen tribuna handiak ziren. Lerro hauek prentsa solidarioaren ikerketa eskasarekiko hurbilketa partzial bat osatzen dute, eta II. Errepublikan bigarren indar sindikal izatera iritsi zen eta Errepublikaren amaieran UGTrekin lehia handia izan zuen erakunde baten ahotsa berreskuratu nahi dute².

1. II. Errepublika: eszeptizismotik erreskatera

II. Errepublikaren etorrerarekin, UGTk Euskal Herriko langileen sindikatu handiena izaten jarraitzen zuen. Eibarko 1929ko I. Biltzarrak geroztik, ordea, SOV pauso garrantzitsuak ematen hasi zen, Konfederazio bilakatzeko. Errepublikak eboluzio horretan lagundu zuen. Ildo horretan, gizarte-ekintza kristauaren eta Alkartasunaren sustatzaile nagusi eta teorikoetako batek, Policarpo de Larrañaga (1977: 196-197) apaizak, honako hau azaldu zuen

[...] el ambiente político-social formado alrededor de la República y las interesantes leyes sociales que se iban publicando y que afectaban directamente a la vida del trabajo, habían impulsado a los obreros a cobijarse en las organizaciones sindicales. [ratificación de la jornada de ocho horas, ley de cooperativas, colocación obrera, contrato de trabajo, subsidio contra el paro forzoso, asociaciones profesionales...] Algunas de esas básicas leyes aconsejaban, casi exigían, una nueva estructuración de `Solidaridad, para mejor adaptarse a sus exigencias, y desenvolverse con más libertad y acierto en sus delicadas intervenciones.

Primo de Riveraren diktaduraren erorialdiaren ostean, Errepublikako legitimitateak askatasunen garapena erraztu zuen. Erregimen berriaren lehenengo urtean, adierazpen-askatasunaren testuinguruak gobernu-zentsuraren ondorio negatiboak jasan zituen prentsa nazionalistan, eta eduki politikoak ugaritu egin ziren prentsan; horrek mesede egin zion Errepublikako askatasunen egoerari. Ildo horretan, Yosu Bilbaok (1986: 641-659) Bilboko egunkarietako atal grafikoak aztertu ditu, eta II.

2. Kontsultatutako artxibategi nagusian (Bizkaiko Foru Aldundiko Liburutegia) *Euzko Langillien* zenbakiak falta dira, hain zuzen, II. Biltzarraren garai garrantzitsuari dagozkionak. Bertan, SEV langile-elkarteak Konfederazioan integratu zen eta SOV izena ELA izenagatik aldatu zen. Ez dago 1933. urteko alerik. *Euzko Langillien* azkeneko zenbakia 1932ko abenduaren 10eko da (432. zk., XIV. urtea). *Lan Deya* 1933ko abenduaren 30etik 1937ko ekainaren 12ra bitartean argitaratu zen, eta zenbaki batzuk gordetzen dira; gordetzen den azkeneko zenbakia maiatzaren 30eko da. *Euzko Langillier* dagokionez, Bilbon editatutako zenbakiak gordetzen dira, hau da, irailaren 28tik aurrerakoak. Dario Ansel autoreak ere dio 1933tik aurrerako ale bakan batzuk gelditzen direla bakarrik (*El Obrero Vasco* zein *Lan Deyarenak*) eta STVren programa eta bereziki hizkuntza sindikala eta propagandakoa zuzenean ezagutzeko aukerak murriztu egiten dituela dokumentazioa eskas horrek (Ansel: 2009, 95-96).

Errepublikak askatasun handiagoko egoera sortu zuela berresteaz gain, eduki politikoaren adierazpen grafikoak garapena izan zuela erakutsi du.

Desde 1931 hasta el inicio de la Guerra Civil, el uso de la información gráfica mantuvo un proceso ascendente. No sólo se beneficiaba de los avances alcanzados en la década anterior, sino de la nueva coyuntura político social de mayor libertad, reflejada en una más grande pluralidad de opciones políticas que supuso el descenso de la información gráfico-deportiva a favor de la de índole política.

Espainiako II. Errepublika aldarrikatu eta bi egunetara, *El Obrero Vasco* Solidaridad de Obreros Vascos-en organoak erregimen berriarekiko sindikatuaren jarrera markatu zuen. Adolfo Larrañaga zuzendariak artikulu bat idatzi zuen lehen orrialdean eta zutabe bakarrean. Bertan, «Errepublikaren etorrera» onartzeaz gain, euskal herritarrekiko errespetua eskatu zion erregimenari, berez eta «antzinatik» Euskal Herria herri errepublikano eta demokrata zela adierazita. Hona hemen «Gure jarrera» (Nuestra posición) artikulua hasierako paragrafoa eta amaiera:



«Nuestra posición» (Gure jarrera).

Nosotros seguimos donde estábamos. Y no claudicamos jamás. Aceptamos el hecho consumado de la llegada de la República española, a la que saludamos con la mayor complacencia, porque los vascos de pura raza, por nuestro abolengo inmemorial, por el concepto de nuestra familia, por la soberanía del pueblo, el más demócrata que ha existido en la historia del mundo, por encima de Grecia, de Roma, de España, de las repúblicas aristocráticas y burguesas de las actuales democracias del mundo de la libertad....

....No ofrecemos ni la paz ni la guerra, nos limitamos a querer vivir, amar y morir con nuestro ideal. Honor para todos que sepan mantenerlos en sus palabras y en sus hechos. ¡Viva la República federal española! ¡Gora la República vasca!³

Policarpo de Larrañagaren arabera, II. Errepublika ezarri ostean, «boterearen mila baliabidetan» oinarriritako sozialistek oztopo gisa ikusten zituzten SOV eta EAJ beren «propagandetarako». Horren ostean, solidarioek Errepublikarekiko zuten joera azpimarratzen du egileak. Euskal estatutu bat sortzea zuten helburu, eta sindikatu solidarioak lan handia egin zuen hori lortzeko.

3. Larrañaga de, A. (1931ko apirilaren 16a): "Nuestra posición" (Gure jarrera), *El Obrero Vasco*, 1. orria, azala.

Sobre el tapete de la política española, la cuestión de la nueva estructuración política del Estado, Solidaridad, consecuente con su doctrina y orientaciones, se inclinó resueltamente por la República Federal Democrática, y dentro de ella, por un Estatuto vasco amplio, que garantizara el gobierno del país por sus propios hijos, y resolviera el problema social, poniendo en práctica, sin vacilaciones, el problema social cristiano, base para llegar al imperio de la justicia social.

Urtebete geroago, egile-zuzendariak hitz hauekin egin zuen Errepublikaren urteurrenaren oroitzapena:



«Primer aniversario de la República» (Errepublikaren lehen urteurrena).

Solidaridad de Obreros Vascos, siempre cristiana, trabajadora, progresiva y con un hondo sentido de la realidad y de la responsabilidad histórica, saluda con su bandera a la República española en su primer aniversario, aun cuando sus finalidades son bien distintas, porque esperamos que respeten nuestra personalidad....

...Pedimos a la República, proteja nuestros intereses obreros, y así lo esperamos; pues de otro modo, creeríamos que todo regocijo de este aniversario, va a ser un canto fúnebre de la República de los trabajadores. La democracia vasca, es ante todos, decente, y quiere que como tal sea tratada; y los obreros son en ella no solo la esperanza más halagüeña, sino la realidad más fuerte, no quiere tiranos, ni esclavos, solo aspira a que en su Nación, reinen la paz, la justicia y la libertad⁴.

Gerra hasita eta Bilboren erorialdia hurbiltzear zela, ELAk altxamendu frankistari egin zion aurre eta esparru errepublikanoa defendatu zuen, langileen eta euskal estatutuaren alde lan egiteko aukera bakarra bezala. Solidarioen sindikatuak, ordura arte ez bezala, UGT eta CNTrekin batera lan egin zuen. Muturreko egoerek behartuta, sindikalista solidarioak, sozialistak eta anarkistak ados jarri ziren, eta 1937ko apirilaren 14an, II. Errepublikaren VII. urteurrenean, Gipuzkoako solidarioen *Euzko Langille* organoak baterako komunikatu bat argitaratu zuen, «Apirilak 14» izenburuarekin.

4. Larrañaga de, A. (1932ko apirilaren 16a): "Primer aniversario de la República" (Errepublikaren lehenengo urteurrena), *El Obrero Vasco*, 1. orria, azala.



1931-1937 «Rescate de la República» (Errepublikaren erreskatea).

1931ko artikuluan bereizitako gertakizunekiko jarrera eszeptikotik gerran zehar egindako defentsara arte, euskal sindikatuak legezkotasun errepublikanoarekiko izandako eboluzioa markatu zuen. Ez dago titularrei eta hiru azaletan eskainitako espazioei begiratu besterik aipatutako eboluzioa ikusteko. Titular batetik zutabe batera, bi zutabeko lauki espezifiko batetik pasatuta, eta 1937ko zenbakiko tratamenduarekin amaituta: «1931-1937 Errepublikaren erreskatea». Sinadurarik gabeko artikulua honako honekin amaitzen du (1931ko harrera hotzarekin aldeatuta): «Gaur 1937ko apirilaren 14a da!!»⁵ II. Errepublikaren azkeneko urteurrena izan zen.

2. Erradikalizatzeko programatikoa

Martín Aurrekoetxeak (2003: 35-36) antisozialismoaren sorreratik (1911) klasearen sindikalismora arte (1934-1935) SOVek eta ELAk izandako jarreraren eboluzioa adierazten du. Egilearen arabera, UGT eta PSOEn aurka sortu zen, eta ekintza-unitate jakin batzuetara heldu zen 1914ko hainbat grebatan. 20ko hamarkadan, berriz, liskar handiak sortu zituen.

En 1911 es sabido que para SOV la huelga y el conflicto eran importados, eran foráneos y exóticos. `Solidaridad´ añoraba la paz social como recuperación de un patrimonio arrebatado y así el "problema social" era una cuestión nacional, un "problema nacional".

Unanuek (2002: 51), berriz, SOVen sorrera garaiko testuinguru antisozialistan kokatzen du, baina aldi berean, solidarioen muga ideologiko kristaua eta sindikatu katolikoak bereizten ditu.

Además del sentimiento nacionalista que tenían muchos trabajadores vascos, era evidente que, en el marco de la confrontación política entre el socialismo y el nacionalismo vasco, el PNV ni podía resignarse a dejar a los trabajadores en manos de los socialistas ni apostar por la alternativa de los sindicatos católicos, organizaciones que se inscribían en las claves políticas de la Restauración española.

5. *Euzko Langile* egunkariaren lehenengo orrialdea. Bilbo, 1937ko apirilaren 14a.

SOVen konfesionaltasunari dagokionez, ez dago zalantzarik, katolizismoa publikoki aldarrikatzen zuelako: «SOV konfesionalki katolikoa zen» —esan zuten Olabarrik (1978: 147)—. Ez da patronalekin nahastu behar. Sindikatu katolikoek ez bezala, SOV langile bazkideek zuzentzen zuten, eta ez elizgizonek edo erlijio-soek. Bertan, ez zegoen gidarik. Aholkulariak zeuden eta bazkide zaindaritzat edo lankidetzat hartzen ziren.

Mess-en (1992: 346) arabera, sindikatuaren proletartze geldo baten ostean, SOVek bere praxia erradikalizatu zuen, eta noizean behin, UGTrekin kolaboratu zuen, hainbat gatazkatan. Esaterako, 1922ko soldata-beherapenetan. UGT eta SOVen diferentzia, ordea, langileen kultura espezifiko baten sortze berantiar batean ere islatzen da. Kultura horrek urte askoan «sozialistatzat» gaitzetsitako festa eta sinboloak integratu zituen; esaterako, Maiatzaren Bateko festa.

Maiatzaren Lehena ospatzeko lehenengo deialdia 1920an egin zuen SOVek. Urtebete lehenago, liskar handiak egon ziren UGTko langileek Ramón de la Sota-ren Euskalduna ontziola-fabrikari eraso egin nahi izan ziotenean. Izan ere, SOVeko bazkideak bertan zeuden lanean Maiatzaren Batean. Meess-en arabera,

[...] todavía después de 1920 (año en el que la Comución nacionalista votó con los republicanos y los socialistas en el ayuntamiento de Bilbao el reconocimiento del 1 de mayo como día festivo) había voces dentro de la prensa sindical nacionalista que abogaban por que el día del trabajador de los sindicalistas fuera el día de San Andrés (30 de noviembre), declarado por Sabino Arana día festivo nacional vasco.

Behin II. Errepublikak ezarrita, Maiatzaren Lehena ezin izan zen kalean ospatu, liskar publikoak sortuko zirelako beldur, gobernuak debekatu egin zuelako. Egun horrek 1932an izan zuen jai- eta ospakizun-izaera. Urte horretan, solidarioen organoak jaieguna berea zela aldarrikatu zuen. «Zuena bezain sozialistena da» idatzi zuten *El Obrero Vasco* argitalpenean. Hona hemen «Maiatzaren 1ean» izenburupean lehenengo orrian argitaratutako komunikatuaren paragrafo adierazgarri batzuk:

EL 1º DE MAYO (Maiatzaren 1ean)

Por encima de todas las Patrias, a través de todas las vicisitudes, nos encontramos hoy, unidos, todos los obreros del mundo.... Hermano vasco, obrero noble y valeroso del País, recuerda que el 1º de Mayo es tan tuyo como de los socialistas, comunistas y sindicalistas, es preciso que sepas que nosotros hay una levadura mística de trabajo, especie de abeja del pañal de oro, de la Patria, por cuya reina, el amor fraternal, trabajamos todos sin descanso para ofrecer la miel más dulce y virgen de nuestra liberación económica, política y social. ¡Gora el 1º de Mayo de los trabajadores vascos!

[...].Quiera el cielo que los patronos incomprensivos de su misión histórica en nuestro País, abduquen de su egoísmo, y laboren por la cosecha futura en beneficio de la gran familia vasca, dentro de la gran familia humana⁶.

6. (1932ko apirilaren 30a): "Primero de Mayo" (Maiatzak 1), *El Obrero Vasco*, lehen orrialdea, azala.

Beharrezkoa da azpimarratzea sindikatuak 1934ko urriko iraultzaren aurrean izan zuen jarrerak garrantzi handia izan zuela ELArentzat. Iraultza horren ondorioz, lokalak itxi ziren eta militante solidarioak kartzelan sartu zituzten. Olabarriren arabera, EAJK beti ukatu izan du solidarioek iraultza-mugimendua babestu izana, baina Payne-ren arabera (1974, Olabarrin aipatua: 1978: 146), «barruti batzuetan (horietan, solidarioek erakunde marxistek deitutako greba orokorra errespetatzen zuten) ELAK erabat babestu zituen iraultzaileen helburuak». Olabarrik (1978: 147) 1936ko hauteskunde-kanpaina solidarioen botoak *klase-borrokan* bilatu izana adierazgarria dela aipatzen du. Kasu batzuetan, urriko mugimenduan parte hartzeko berariazko erreferentzia ere egin zen.

Errepublikara azkeneko maiatzaren 1ean, erreketek eta falangistak Bilbon sartu baino hilabete eta erdi lehenago, Gipuzkoako solidarioen organoak orrialde oso bat eskaini zion solidarioen deialdiari, langile guztientzat berezia zen egun batean, matxinatuen aurkako borroka handi zezaten.



«1^o de Mayo» (Maiatzak 1).

Adierazgarria da tituluan bertan langilearen egunarekin identifikatzeko «gure» (festa) adjektiboa erabili izana⁷. Garrantzi handiko beste xehetasun bat Utrilla-ren irudia da. Bi nortasun nabarmentzen ditu: marrazkian agertzen diren bi langileen txapelak eta protagonisten aurpegi eta gorputzen indar bizia. Eguzkiak gogor jotzen du horizontean, eta hori itxaropen-zeinu eta -mezua da tropa nazional frankisten esku gelditzear dauden euskal langileentzat. *Euzko Langilek* azkeneko *Maiatzak 1* honetarako aukeratutako aurretituluak izaera klasista eta langileen elkartasuna erakusten du, lanaren duintasuna azpimarratzen duelako: «Gizakiarengan handia den orok lanean du sorburua». II. Errepublikaren hasieran ez ziren horrelako tituluak argitaratzen. Gerran izandako partaidetza aktibo mankomunatuari esker, SOV-ELAK postulatu errepublikanoetarako eta klase-postulatueta-rako aldaketa egin zuen. CNT, UGT eta ELAK batera sinatutako komunikatu ugari solidarioen organo eta argitalpenetan argitaratu ziren.

7. (1937ko maiatzaren 1a): "Primero de Mayo, la Fiesta del Trabajo, nuestra fiesta", *Euzko Langile*, 1. orrialdea.

Testuinguru politikoarekin lotuta, SOV-ELAren eboluzioa argi ikusten da, eta hala islatu zen II. Errepublikan, Bilboko hiru egunkari handietan: *El Liberal*, *Euzkadi* eta *La Gaceta del Norte*. Egunkari horiek garaiko ideologia nagusien adierazle ziren. Labur aipatuta, alde batetik, *El Obrero Vasco-Lan Deya* eta *Euzko Langille* (SOV-ELAren organoak) eta *Euzkadi* egunkaria, eta bestetik, *La Lucha de Clases* eta *El Liberal* zeuden; eta azkenik, sindikatu katolikoen artean, *La Gaceta del Norte*. De la Granja-k (1986: 665) hiru egunkari handienek II. Errepublikan izandako dialektika azaltzen du, eta SOVen eta ELAren eboluzio programatikoa berresten duten bi etapa markatzen ditu.

El Liberal, *Euzkadi* y *La Gaceta del Norte* eran los mejores periódicos de Bilbao en la República y polemizaban dura y frecuentemente entre ellos, sobre todo *Euzkadi* y *El Liberal* en 1931-33 y *Euzkadi* y *La Gaceta del Norte* en 1934-36, en concordancia con la evolución política del PNV en esos años.

3. SOVetik ELAra, Lanbide Elkarteetatik Sindikatura

SOVen ekintza programatikoaren eboluzioa lanbide-elkartearen antolaketa-faktorearekin lotuta dago. 1933an Gasteizen egin zen II. Biltzarrean, industria-federazioak biltzen zituen sindikatu edo konfederazio-erakunde bilakatu zen. Bai Unanuek eta bai Olabarrik, bakoitzak bere ikuspuntutik, faktore hori azpimarratzen dute, II. Errepublikan solidarioen erradikalizatzean garrantzitsua izan zelako.

Desde la perspectiva organizativa hay que señalar que se inició un proceso de modernización de las estructuras sindicales. Poco a poco, las sociedades de oficio, que hasta los años treinta siguieron siendo la base del movimiento sindical, fueron sustituidas por lo que genéricamente se han llamado sindicatos, que eran organismo con base en la industria. (Unanue, 2002: 59)

La nueva central sindical, que se fundó veinte años después de los comienzos de la acción ugetista en Vizcaya, se afirmó durante la República como la segunda en importancia a pesar de que todavía en 1930 apenas había salido de su etapa fundacional y no había dado el paso de la sociedad de oficio al sindicato. (Olabarri, 1978: 131).

Eboluzio horrekin batera, politika eta alderdiak garatzen joan ziren erakunde gisa. Ildo horretan, II. Errepublikak muga bat markatu zuen

La organización de los partidos como organizaciones de masas no se da hasta el advenimiento de la II República. La organización de los partidos, monárquicos (conservadores o liberales) nacionalistas, republicanos y socialistas funcionaba con un sistema organizativo basado en un grupo de notables y la afiliación era escasa, incluso ene. Partido socialista cuya base electoral y sindical era amplia. No partido de masas pero con un programa bien definido, como corresponde a un partido político moderno. La llegada de la II República cambió el panorama político en Vizcaya. (Olabarri, 1978: 12)

Olabarrik SOVen bi pauso adierazgarri nabarmentzen ditu. Alde batetik, Eibar-ko I. Biltzarra (1929). Bertan, ekintza-programa garrantzitsu bat onartu zen, «ongi zehaztutako "Alkartasunaren" lehenengo aldarrikapen-programa». Eta bestetik, 1930ean legalki Konfederazioa sortzeko erabakia. Bigarren pauso hori II. Errepublikan onartu zen, 1933an Gasteizen egin zen II. Biltzarrean.

[...]en el (congreso) de Vitoria se aprobó una importante declaración de principios y se adoptó una nueva estructura organizativa, que entre otras cosas obligó a modificar la denominación de la entidad: se dio entrada en ella a las organizaciones de empleados (Solidaridad de Empleados Vascos) y profesionales liberales (agrupaciones de médicos, maestros, abogados, etc.) paralelas a SOV, pero que hasta entonces habían permanecido al margen de ella, y solidaridad de Obreros Vascos pasó a llamarse Solidaridad de Trabajadores Vascos. (Olabarri,1978: 31)



«Euzko Langillia-El Obrero Vasco»ren goiburuko 6 ezkutuek ezarpen solidarioa duten sektore profesionalen eta elkarteen sinbolo dira: itsasgizonak, eraikuntzako langileak, tipografoak, metalurgikoak eta laborariak.

Hogeiko hamarkadako *El Obrero Vasco* organo solidarioaren goiburuak garbi islatzen ditu Elkartasuna osatzen zuten lanbide-elkarteak eta haien konfederazio-egituraren hastapena. Ezarpen solidarioa zuten eta sektore profesionalen eta elkarteen sinbolo ziren 6 ezkutu agertzen ziren: itsasgizonak, eraikuntzako langileak, tipografoak, metalurgikoak eta laborariak. Goiburuko sinbologia hori hamar urtez jarraian mantendu zen, harik eta 1931ko lehenengo zenbakian desagertu ziren arte. Aldaketa hori sindikatuaren barne-prozesuarekin erlaziona dezakegu, apurka, gremio- eta lanbide-elkarte izatetik izaera sektorial eta geografikoa izango zuen konfederazio batera aldatzen ari zelako. Ildo horretan, lehenengo pausoa Eibarko Biltzarrean eman zen, 1929an. 1930ean, antolaketa-egitura legalki aldatzeko erabakia hartu zen, 1933an, Gasteizko Biltzarrean. Bertan, sindikatu izateko erabakia hartu zen. Goiburuak modu grafikoan erakusten dituzte aldaketa horiek.

1931ko urtarrilaren 2tik 1933ko abenduan desagertu zen arte, *El Obrero Vasco* ez zuen goiburuan talde edo gremioen ezkutuak inprimatu, eta berriro, hasierako gupil koskaduna agertzen da hondoan eta erdiratuta. Horren gainean argitalpenaren izenburua agertzen da, gaztelaniaz bakarrik. Izenburuak laukitxo bat du albo bakoitzean: ezkerraldean erredakzioko eta administrazioko zuzendaritza agertzen da, eta eskuinaldean, berriz, solidarioen bi ideia nagusiak irakurtzen dira, euskaraz («Langileen Alkartasuna eta Euzko Anaitasuna»).

4. Langileen prentsaren eragin urria

El Obrero Vasco-Euzko Langillia Solidaridad de Obreros Vascos-en lehenengo prentsa-organoa 1919ko uztailaren 31n sortu zen, eta aldizkakotasun desberdinekin (hamabostekaria, hamarkaria edo astekaria) argitaratzen jarraitu zuten,

1933ko abenduaren 24an *Lan Deya* (La Voz del Trabajo) sortu zen arte. Argitalpen horrek 1937ko ekainean Bilbon erreketete eta falangistak sartu aurreko bezperara arte iraun zuen.

El Obrero Vasco-Euzko Langilliak hiru zuzendari izan zituen. Lehenengoa Mario Aurrekoetxea tipografoa izan zen («Aurre-Txiki»). Zuzendaritza-lana 1920ko irailean utzi zuen, langile izatetik patroiz tipografiko izatera pasatu zelako. Manuel Robles-Aranguiz tipografoak zuzendaritzarekin jarraitu zuen, 1923ko urrira arte. EAJk diputatu aukeratu zuen Robles-Aranguiz Espainiako Gorteetarako, eta Euskal Langileen Alkartasunako presidente (ELA) 1933an. 1933ko Eguberrietara arte, *El Obrero Vasco-Euzko Langillia* Adolfo de Larrañaga poeta eta intelektualak zuzendu zuen. Argitalpenaren edizioa eta erredakzioa Bilboko Zazpi Kaleetako Posta kalean zehaztu zen, 17. zenbakian, eta Tipografiko Orokorrean inprimatu zen, baita bere atzetik sortu zen argitalpena ere; hau da, *Lan Deya* berria. Argitalpen berriaren lehenengo zenbakia 1933ko abenduaren 30ean kaleratu zen. 1937ko otsailaren 16an, egunkari bilakatu zen. Hortik lau hilabetetara, 1937ko ekainaren 12an, azkeneko zenbakia argitaratu zen. *Lan Deya* astekaria Bilboko Zazpi Kaleetako Andra Maria kalean editatzen zen. Egunkari bilakatu zenean, Henao kalearen 8. zenbakira tokialdatu zen; hain zuzen, *La Gaceta del Norte* lantzen eta inprimatzen zen eraikinera.

Argitalpen batetik besterako aldaketa 1933ko Gasteizko II. Biltzarrak eragin zuen, baita sindikatuaren egitura- eta izen-aldaketak ere. Policarpo de Larrañaga (1977: 227) teoriarari solidarioak horrela azaldu zuen

El Obrero Vasco reclamaba nuevo nombre, ya que en el Congreso de Vitoria había remplazado la palabra “trabajador” a la de “obrero”. Además se imponía organizar un cuerpo de redacción competente y responsable, reforzando sus colaboradores. Por todas estas razones, desaparecía el semanario anterior, que llevaba consigo todo el historial de ‘Solidaridad’, y salía a la palestra pública *Lan Deya* [La Voz del Trabajo], en circunstancias bien duras y difíciles, como órgano de las Agrupaciones, con la aspiración de llegar a ser diario, y apoderarse, con sus entusiasmos juveniles, de los corazones de todo el proletariado vasco.

Hirugarren argitalpen solidarioa, *Euzko Langille* 1935ean sortu zen. Gipuzkoako prentsa-organo solidarioa izan zen, erreketeteak Gipuzkoako hiriburuan sartu eta babes bila Bilbora ihes egin zuen arte. Bilbon argitaratutako lehenengo zenbakiak hiru bertso zituen lehenengo orrialdean, «Agur Donosti» izenburupean. *Euzko Langilleren* azkeneko zenbakia 1937ko ekainaren 12an kaleratu zen, *Lan Deya* bezala. Beraz, ELAren bi argitalpenak Bilbon egon ziren ia urtebetez. Gipuzkoako solidarioen argitalpenaren erredakzioa eta administrazioa Areatza kalearen 3. zenbakian kokatuta zeuden.

Olabarrik (1978: 159) *El Obrero Vasco-Euzko Langillia* argitalpenak izengoiti ugari zituela azaltzen du. Izengoiti horien atzean, argitalpena lantzen zuten idazle urriak ezkutatzen ziren. Horrez gain, egunkariko hiru zuzendarien (Aurrekoetxea, Robles Aranguiz eta Adolfo de Larrañaga) jarduera nabarmentzen du. Azkeneko zuzendaria obra solidarioan gogo biziz eta arduraldi osoz lan egin zuen intelektual bakarra zen. *El Obrero Vasco-Euzko Langillia* argitalpenak etengabe eskatzen zituen lankidetzak, eta Olabarriren arabera, artikulua osagarriak behar izaten

zituzten hiru orrialde betetzeko (laugarren orrialdea iragarkiz beteta zegoen). Egilearentzat benetan komikoa litzateke intelektual solidarioez hitz egitea, Errepublikaren aurreko garaian.



Datu fidagarrien faltan, hainbat egilek egin duten bezala, tiradak txikiak zirela aipatu behar dugu (Miralles-ek antzeko aipamen bat egiten du organo sozialistaren gainean eta UGTren *Lucha de Clases*en gainean). Defizita zela-eta, argitalpenen aldizkakotasunak aldatzen zituzten: astekaria, hamarkaria, edo hamabostekaria. Olabarriren arabera, Manuel Robles Aranguiz-ek honako hau adierazi zuen egin beharreko lanaren gainean: «Apaltasuna alde batera utzita, nik, ongi ala gaizki, gehienetan ia egunkari osoa idazten dut; original batzuk orrazten eta zuzentzen ditut, gauzak gehitzen ditut, eta horrez gain, beste hainbat gauzez arduratzen naiz».

5. *Euzkadi* eta *El Liberal* egunkari handien protagonismoa

SOVen eta ELAren organoen zenbakiak falta direnez, eta batik bat, 1933ko *Euzko Langillien* zenbakiak falta direnez, ezin dezakegu sindikatuaren eboluzioa aztertu prentsaren bidez. Horrez gain, bigarren faktore batek azterketa hau baldintzatzen du. Izan ere, *Euzkadi* egunkariak ideologo eta idazleak (euskal nazionalismoaren mugimenduaren adierazpen nagusia), informazio eta iritzi dinamikoak eta orduko gizarte eta lana zituen ardatz.

Ikertzaile guztiak bat datoz *Euzkadi* egunkariak *El Obrero Vasco*, *Lan Deya* eta *Euzko Langille* astekari, hamarkari eta hamabostekariak baino protagonismo handiagoa zuela aipatzean. *Euzkadiren* eragin maila (nagusiki, bere tirada) begien bistako arrazoia da langileen mugimendu nazionalistaren argitalpenen mendekotasun eta marjinaltasuna ulertzeko.



Aipatutako argitalpenez gain, solidarioek adierazpen-organo garrantzitsu bat zuten *Euzkadi* egunkarian. Hogeita hamarreko hamarkadan, egunkariak «Gizarte Lana» izeneko atal bat eskaintzen zion. P. de Larrañagaren (1977: 227) arabera, *Euzkadi* egunkariak egunero orrialde bat eskaintzen zien gizarte-gaiei eta Alkartasunaren komunikatu guztiak sartzen ziren bertan. Egile berak (1977: 165) aipatutako orrialdean jasotako informazioak interes handia eragiten zuela nabarmentzen du.

las hojas sociales de Euzkadi y El Día, que diariamente iban recogiendo notas de la campaña de los solidarios y que con sus artículos doctrinales y de información ofrecían gran interés, las conferencias y mítines que se multiplicaban en todas las regiones, cada vez, con mayor calor y entusiasmo, ofrecían un espectáculo consolador del resurgimiento social de Euzkadi.

Ansel autoreak argi nabarmentzen du zeintzuk izan diren bere iturri nagusiak 1933ko Gasteizko Kongresuaren berri ematerakoan. *Euzkadi* egunkaria da iturburu nagusia, baita *El Día* donostiarra ere (Ansel: 2009).

Garde-k (2001: 33) ere *La Voz de Navarra*ko «Gizarte-lana» orrialdea aipatzen du. Bilboko *Euzkadiko* atala eta Donostiako *El Día*ko atala bezala, ELAren lanak hedatzeko informazio-orria zen.

Olabarriren (1978: 158) aburuz, solidarioek hogeita hamarreko hamarkadara arte ez zituzten hainbeste hezitzaile kulturadun eta sozialistek bezainbeste hezitzaile eduki: «Jarduera handiagoa ez bada —hala zioen 1929ko prentsa-organoak—euskal gizarte-ekintzako propagandistak urriak direlako da —altu eta argi esan beharra dago—. Euskal Herrian gaur egun jarduera osoa edo parte bat era kristauan gizarte-ekintzari eskaintzen dioten pertsonak oso gutxi dira». Zuzendaritza-postuetan jardun zutenek oso gutxitan zuten gailentasun intelektual edo politikoa; salbuespenen artean daude Errepublikan zehar aukeratutako zuzendari solidarioak (Robles Aranguiz tipografoa, Izaurieta abokatua eta Heliodoro de la Torre Solidaridad de Empleados Vascos-en fundatzailea, eta ondoren, Jose Antonio Agirreren Gobernuan Ogasun Sailburua izan zena) eta apaiz batzuk (Policarpo Larrañaga, Santi Onaindia eta José de Ariztimuño, «Aitzol»). SOVeko batzordeko edo batzar nagusiko bazkide-lankide gisa eta aholkulari gisa, eragin handia izan zuten erakundeko liderren artean. Beraz, Olabarriren iritziz, arlo horretan ere, Errepublikako urteetan ekintza solidarioa hobetu zen.

Hari berdinetik heltzen dio Ansel autoreak. Errepublika-garaian solidarioen apaiz ahokulariek izan zuten indarra aldatzen doa eta kanpoko propagandistok sindikatuaren 1933tik aurrera barneko militanteak ordezkatzeko hasi zirela aitortzerakoan (Ansel: 2009, 95):

El papel de los nuevos directivos es evidente, en el caso de la propaganda, que durante el primer bienio tuvo entre sus destacados protagonistas a los que Elorza ha llamado *sacerdotes propagandistas*. Pues bien, hemos detectado que su peso menguó considerablemente a partir de 1933. Este aspecto nos permite presumir que fueron paulatinamente reemplazados por los nuevos directivos y propagandistas que surgieron dentro del propio medio obrero —hijos de la crisis de los años treinta y más imbuidos de una conciencia que podemos definir de clase—, lo que en parte coadyuvó a explicar el cambio ocurrido después de 1933 en el discurso propagandístico y, sobre todo, en la praxis sindical solidaria.

Egunkarien protagonismo menderatzaileari dagokionez, egileak *La Lucha de Clases*eko erredaktore batek *El Liberal* egunkari handiaren informazioak kontuan hartuta, irakurle sozialistek eta errepublikanoek zuten jarreraren gainean egindako iruzkin bat nabarmentzen du: «Hona hemen sozialisten jakin-nahia eta interesa asetzen dituen egunkari bat, *El Liberal*. Eskabidez datoz eta mesedea... gure aurka itzultzen da, eta LCri dagokionez, egiten dituen iruzkin ugari ez dira beharrezkoak». Defizita organo sozialistan estaltzen zen iragarkiekin (langileen kooperatiben iragarkiak, sozialisten denden iragarkiak... dohainak eta dirulaguntzak oso urriak ziren). Antzeko zerbait gertatu zen *El Obrero Vasco* eta *Lan Deya* egunkariekin.



Argitalpenaren irakaspen-izaeragatik eta asteroko aldizkakotasunagatik, Miralles-en (1986: 636) aburuz, *La Luchak* ez zituen informazio-beharrak asetzen, eta, beraz, afiliatuek bigarren egunkari bat irakurtzeko beharra izaten zuten. Bigarren egunkari hori Bizkaiko langileen klasearena zen; hain zuzen, Bilboko *El Liberal* egunkaria. *La Luchak* «Bizkaiko demokraziaren» organotzat hartzen zuten.

Solidarioen argitalpenek EAJren *Euzkadi* edo *El Día* edo *La Voz de Navarra* egunkariak irakurtzera bultzatzen ez zutela alde batera utzita, ez legoke oker esatea solidarioei gauza bera gertatzen zitzaiela, alderdiaren egunkaria irakurtzean. Afiliatuen gutxiengo batek sindikatuaren astekaria ere irakurtzen zuten eta jeltkideen «Labor Social» orrialdean zekarrenaren aldean bestelako langileria-aren aldeko eta kapitalismoarena aurkako tonua antzematen dio Ansel autoreak aztertu dituen *Lan Deyaren* zenbaki sueltoetan (Ansel, 2009: 101-102). Ez ditugu tirada eta salmentei dagozkien zifrak, ezta solidarioek beren doktrina banatzeko edo finantzatzeko prozesuari buruzko daturik ere. Arlo horretan, ikerketak falta dira. Garaiko Bilboko egunkariaren gainean, ordea, ikerketak egin dira.

6. Ondorioak

Euskal solidarioek eszeptizismoz hartu zuten II. Errepublikaren etorrera. Mundu nazionalistan inskribatuta, erregimen berri baten ezarpena onartzen zuten eta bere garapena Euskal Herrian autogobernua edukitzearen baldintzarekin onartzen zuten. Euskal Estatutua II. Errepublikan gehien erabilitako argumentuetako bat izan zen, baita hori lortzeko esfortzua ere. Oro har, gai garrantzitsuena izan ez bazen ere, politikoki, garrantzitsuena izan zen. Errepublika amaitzean, egoera zaildu zenean, Estatutua eta Euskal Gobernu berria Errepublika eta indar sozialisten, anarkisten, komunisten eta errepublikanoen elkartasuna defendatzeko arrazoi izan ziren.

Solidaridad de Obreros Vascos-en argitalpenek (1919tik 1933ra) eta Euskal Langileen Alkartasunaren argitalpenek (1933tik 1937ra) Errepublikara-egoera aldakorretara egokitzeko egindako esfortzua eta antolaketaren eboluzioa jasotzen dituzte. Sindikatuaren II. Biltzarra garrantzitsua izan zen sindikatuaren antolaketa-heldutasunean eta aldarrikapen-praxian. II. Errepublikaren amaieran, ELA bigarren sindikatua zen, eta UGTrekin lehia handia zuen. Izan ere, Errepublikara ezarri arte, UGT izan zen nagusi. Ildo horretan, euskal solidarioek kausa nazionalista babestu zuten, Autonomia Estatutuaren alde; betiere, langilearen defentsarako bere antolaketa- eta aldarrikapen-helburuak albo batera utzi gabe, eta lehenengo urteetako langile «maketo», «exotiko» eta «kanpotarraren» jarrera baztertua. *La Lucha de Clases*etik solidarioei dei egin zitzaion Fronte Popularraren alde bozkatzeko 1936an. Hori sindikatu solidarioak klase-postulatuetarantz egindako eboluzioaren seinale izan zen.

Azkenik, SOVeko langileen prentsak —eta UGT-PSOeko langileen prentsak— egunkari nagusiekiko (*Euzkadi* eta *El Liberal*) zuen mendekotasuna nabarmendu behar da. Erlazio baten eta bestearen konparazio eta ñabardura guztiak alde batera utzita, indarren korrelazio negatiboa izan zen organo solidarioentzat, gaurkotasanaren luma indartsu eta erakargarriek tinta egunkarian gastatzen zutelako. Edonola ere, ez dira prentsa solidarioan kolaboratu zuten artikulugileak baztertu behar, beren sinadurek azterketa zehatzago baten beharra dutelako. Prentsa solidarioa komunikatzaile eta historialarien zain dago, Euskal Herriko sozialismoaren eta UGTren munduan jada ikertu diren arloak aztertzeko. Horrek ELA-EAJren arteko harremana argitzeko balioko liguke, ikuspuntu solidariotik, eta beraz, ez bakarrik *Euzkadi* egunkariaren ikuspuntutik. Izan ere, egunkari horren gaineko ikerketa gehiago daude. Horrez gain, prentsa solidarioaren azterketak argitalpenak inprimatzen zituzten kazetaritza-enpresen errealitatea ezagutzeko eta horiek, oro har, prentsarekin zuten harremana ezagutzeko aukera emango liguke.

Erreferentzia bibliografikoak

- Ansel, D. (2009): “Del Congreso de vitoria a la evolución sindicalista de Solidaridad de Trabajadores Vascos. 1933-1936”, *Sancho el Sabio*, **31**, 81-116.
- Aurrekoetxea, M. (2003): *De Solidaridad de Obreros Vascos a Euskal Langileen Alkartasuna 1911-2001*, Manu Robles-Arangiz Institutua, Bilbo.
- Bengoa, V. (1995): *Una mirada sobre la historia de ELA*, apunteak, argitaragabea.
- Bilbao, J. (1986): “La evolución de la información gráfica en la prensa diaria vizcaína (1900-1937)”, in M. Tuñón de Lara, *La Prensa de los siglos XIX y XX. I En cuento de Historia de la Prensa* (orr.: 641-659). Bilbo: UPV/EHU.
- De la Granja, J.L. (1986): La prensa nacionalista vasca: 1930.1937. Una aproximación histórica. En: Tuñón de Lara, M. *La Prensa de los siglos XIX y XX. I En cuento de Historia de la Prensa*, UPV/EHU, Bilbo, 659-687.
- Díaz Noci, J. (1994): *Euskarazko aldizkari, egutegi eta almanaken errolda (1834-1959)*, Eusko Ikaskuntza, Donostia.
- Fusi, J.P. (1975): *Política obrera en el País Vasco*, Turner, Madrid.
- García Venero, M. (1964): “La Solidaridad de Obreros Vascos (1911-1937)”, *Revista de Trabajo*, **8**, 3-21.
- Garde, M.L. (2001): *ELA a través de dos guerras (1936-1946)*, Pamiela, Iruñea.

- Larrañaga de, P. (1976): *Contribución a la historia obrera de Euskal Herria*, I. liburukia, Auñamendi, Donostia.
- , (1977): *Contribución a la historia obrera de Euskal Herria*, II. liburukia, Auñamendi, Donostia.
- Mees, L. (1992): *Nacionalismo vasco, movimiento obrero y cuestión social, (1903-1923)* Sabino Arana Fundazioa, Bilbo.
- Miralles, R. (1986): “La lucha de clases: estudio de algunos aspectos de un periódico socialista vasco durante la II República”, in M. Tuñón de Lara, *La Prensa de los siglos XIX y XX. I Encuentro de Historia de la Prensa*, UPV/EHU, Bilbo, 631-641.
- Olabarri, I. (1978): *Relaciones laborales en Vizcaya (1890-1936)*, Leopoldo Zugaza, Bilbo.
- Otaegui, M. (1981): “Organización obrera y nacionalismo. Solidaridad de Obreros Vascos (1911-1923)”, *Estudios de Historia Social*, **18-19**, 7-83.
- Payne, S. G. (1974): *El nacionalismo vasco. Desde los orígenes hasta la ETA*, Dopesa, Bartzelona.
- Rivera, A. (2003): *Señas de identidad. Izquierda obrera y nación en el País Vasco, 1880-1923*, Biblioteca Nueva, Valentín de Foronda Gizarte Historia Institutua, Gasteiz.
- Ruiz de Gauna, A. (1991): *Catálogo de publicaciones periódicas vascas de los siglos XIX y XX*, Eusko Jaurlaritza, Gasteiz.
- Unanue, J.M. (2002): *Las relaciones laborales en Euskal Herria. Apuntes históricos y análisis de su evolución desde la transición política*, Manu Robles-Arangui Institutua, Bilbo.
- Urkiza, B. (1995): *El sindicalismo nacionalista en Euskadi: Solidaridad de Trabajadores Vascos en la II República*, Zerbitzu editoriala UPV/EHU, doktorego-tesia, Leioa.

